



Esp.kodea: 2021KZUD0005

Gaia: PDO PROYECTO PARA LA
RECUPERACION ESTETICA DE LA FUENTE
DE ITURRIOTZ

Hasiera eguna: 2021/07/22

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 30ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Arrasate Zientzia Elkartearekin hitzarmena sinatzea (2021KZUD0005)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Arrasate Zientzia Elkarteak aurtengo jarduera egitasmoaren zerrenda aurkeztu zuen uztailean. 2021 ekintzen plangintzak jarduera hauek biltzen ditu: bi arkeologia ikerketa, Anporreta eta San Pedro baseliza; urteko hitzaldi zikloa eta Iturriotz iturria berreskuratzea, guztira 12.461,32 euroko aurrekontuarekin, ohiko funtzionamendu eta gastu arruntak barne. Jarduera arkeologikoak burutzeko Foru Aldundiaren 1.705 euroko dirulaguntza laguntza jaso dute.

Gauzak horrela, hauek kontuan izanik:


1.- Arrasate Zientzia Elkarteak 1990 urtean sorturiko kultura elkarteak da eta hauek dira erakundeak dituen helburu nagusiak:

- Arrasateko kultura eta natura ikertu, zabaldu eta gai horien inguruan aholkua ematea
- Ondarearen erabilera arrazionala bermatzeko Arrasateko baliabide historiko-artistiko eta naturalei buruz aholkua ematea
- Harremana eta lankidetzak sustatzea antzeko helburua duten erakunde eta elkarteekin

2.- Arrasateko Udalak bere helburuen artean ditu Kultura ondarearen zaintza, kontserbazioa eta zabalkundea, bai eta herriko historiaren gaineko ikerketa bideratzea eta gizarteratzea ere.

3.- Bi erakundeak partekatzen dituzten helburuak ardatz hartuta Arrasate Zientzia Elkarteak 2021urtean garatzeko ekintza zerrenda prestatu du, bai eta jarduera horiek burutzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru baliabideen aurrekontua ere. Proiektu zerrenda hori izango da hitzarmenaren xede.

4.- Arrasateko Udalak Arrasate Zientzia Elkarteak azken urteotan burutu duen jarduera laguntzeko, bultzatzeko eta egonkortzeko helburuarekin aurreikusi du 2021eko udal aurrekontuan hitzarmen bidezko diru laguntza bideratzea elkarteak burutu asmo dituen proiektuak finantzatzeko.

Kodea	BB21/01105	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/urr./04	CUDO	000.0055.AAAAMS2N.T.4sC5	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2NT.4sC5			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021KZUD0005

Gaia: PDO PROYECTO PARA LA
RECUPERACION ESTETICA DE LA FUENTE
DE ITURRIOTZ

Hasiera eguna: 2021/07/22

Kultura eta Euskara Batzordeak akordio hau hartzea proposatu dio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehena: hitzarmena sinatzea Arrasate Zientzia Elkartearekin.

Bigarrena: Arrasate Zientzia Elkarteari 10.756,32 euro dirulaguntza ematea, 1.02.00.481.334.02.00 partidaren kontura. Laguntza bi zatitan ordainduko da. Laguntzaren %60 6.453,79 hitzarmena sinatu eta epe laburrean. Gainerakoa laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikazioa aurkeztu beharko dute 2022eko urtarrilaren 15a baino lehen eta egin ahal izango da 2021ko dirulaguntza deialdiak jasotako moduetako baten.

Hirugarrena: Arrasate Zientzia Elkarteari 30 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalarari adierazteko agindutako diru laguntza onartzen ote duen; epe horren barruan kontraktorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Elkarteari laguntza onartzen duela adierazteko bidal dezake Kultura sailera mezu elektronikoko bidez. Hitzarmena sinatzeak ere laguntza onartzen dela esan gura du.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozein ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsu aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA
FERRERIAS KALEA, 28B - B. REP.: JOSE ANGEL BARRUTIABENGOA
20500 ARRASATE/MONDRAGON

Kodea	BB21/01105	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./04	CUDO	000.0055.AAAAMS2N.T.4sC5
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAMS2NT.4sC5		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			

